

Beste Iragarki Ofizial Batzuk

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

IRAGARKIA, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruarena, Etxebarriko Udalerrian etxe- eta merkataritza-erabileretarako «MOP 5 bar-eko gas naturala banatzeko sarea eta Etxebarriko ENE» deritzon proiektuaren administrazio-baimenerako eskabidea jendaurrean erakusteko dena.

16664

OSASUN SAILA

IRAGARKIA, 316/08 administrazioarekiko auzi-errekursoan interesdun direnak epatzeko dena (procedura arrunta, 98 Legea).

16665

EUSKAL TRENBIDE SAREA

IRAGARKIA, hornitzaleak sailkatzen Eusko Trenbide Sareak hartu duen sistemari buruzkoa.

16665

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3808

3/2008 LEGEA, ekainaren 13koa, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea bigarrenez aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ekainaren 13ko 3/2008 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea bigarrenez aldatzekoa, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak euskal eskola publikoko ikastetxeetako zuzendarien eskumenak arautzen ditu hainbat artikulutan, baita haien aukeratzeko, izendatzeko eta kargutik kentzeko baldintzak eta procedura ere.

Hamalau urte baino gehiago igaro dira legea onartu zenetik, eta urte horietan bildutako esperientziak, gaiari buruzko hainbat foro, mintegi eta lan-taldeetako ondorioak eta euskal eskola publikoko ikastetxeetako zuzendarien elkarrekin eta ikasleen gurasoen elkarrekin hezkuntza Administrazioari helarazitako dokumentuek erakusten dutenez, indarrean dagoen araudia aldatu

Otros Anuncios Oficiales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

ANUNCIO del Jefe de la Oficina Territorial del Departamento de Industria de Bizkaia, por el que se somete a información pública la solicitud de Autorización Administrativa del proyecto denominado «Red de distribución de gas natural MOP (5 bar y ERM de Etxebarria» para usos domésticos y comerciales en el municipio de Etxebarria.

16664

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso procedimiento ordinario Ley 98 n.º 316/08.

16665

EUSKAL TRENBIDE SAREA

ANUNCIO relativo al sistema de clasificación de proveedores adoptado por el ente público Euskal Trenbide Sarea.

16665

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3808

LEY 3/2008, de 13 de junio, de segunda modificación de la Ley de la Escuela Pública Vasca.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley 3/2008, de 13 de junio, de segunda modificación de la Ley de la Escuela Pública Vasca

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, regula en varios de sus artículos las competencias de los directores y directoras de los centros docentes de la escuela pública vasca, así como las condiciones y el procedimiento para su elección, nombramiento y cese.

Transcurridos más de catorce años desde la aprobación de la Ley, la experiencia acumulada a lo largo de esos años, las conclusiones alcanzadas en los diferentes foros, seminarios y grupos de trabajo desarrollados sobre el tema, y los diferentes documentos que las asociaciones de directores y directoras y las asociaciones de padres y madres de alumnos y alumnas de los centros de

beharra dago, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak dioena garatzeko.

Beharrezkotzat jotzen da zuzendariaren irudia indar-tea eta kargu hori betetzeko pertsonarik egokienna izendatzeko hautaketa-sistema ezartzea. Izan ere, funtsezko garrantzia duen kargua da euskal eskola publikoko ikastetxeen antolaketa eta jardunbiderako, haitan eman-dako irakaskuntzaren kalitaterako eta haien autonomia behar bezala garatu eta balitzeko. Hori guztia, ikastetxe bakoitzean eskuratu nahi diren emaitza akademikoak eta hezkuntzakoak lortzea ahalbidetuko duen kohesio-, elkarbizitza- eta lan-giroa sortzeko asmoarekin.

Horrela, bada, Euskadiko ikastetxe publikoetako zuzendariak izendatzeko hautaketa-sistemas berdintasun, publikotasun, meritu eta gaitasun printzipioak izango ditu oinarri, lanbide mailan egokienak diren eta hezkuntza-komunitatearen babes handiena lortzen duten hautagaiaiak aukeratzeko.

Ikastetxeari esleitutako irakaskuntzaren bat ematen duten karrerako irakasle funtzionarioen arteko meritu-lehiaketa bidez egingo da hautaketa.

Era berean, ikastetxeetako zuzendaritza-karguak, eta batez ere zuzendariak, egoki balioesteko neurriak ezarriko dira. Izan ere, ikastetxe publikoetako kalitatea eta jardunbide egokia bermatzeko lan hain garrantzitsua behar bezala aitoru eta balioetsi beharreko lana dela uste da.

Horrela, bada, zuzendaritza-karguak eta, bereziki, zuzendari kargua betetzeko zereginabereiz ordaindu da, exijitutako erantzukizuna eta arduraldia kontuan hartuta, Jaurlaritzak ezarritako osagarrietarako finkatzen dituen kopuruei jarraiki.

Era berean, zuzendaritza-karguak eta, bereziki, zuzendari kargua betetzeko zereginabereiz balioetsiko da irakaskuntzako funtzio publikoan dauden lanpostuen horniduraren ondorioetarako eta, batez ere, Hezkuntzako Ikuskaritzan sartzeko.

Bestalde, zuzendariak, ikasketa-buruak eta idazkariak agintaldiaren amaieran ebaluatuko dira eta ebaluazio positiboa lortzen dutenek aitormen pertsonala eta profesionala jasoko dute, araudi bidez ezarritako baldintzetan.

Halaber, euskal eskola publikoko ikastetxeetako zuzendariek, araudi bidez finkatzen den denboraldian kargua balioespen positiboarekin bete dutenean, dagoien ordainsari-osagarriaren zati bat jasotzen jarraituko dute aktibo dauden bitartean, betiere, araudi bidez

la escuela pública vasca han trasladado a la Administración educativa ponen de manifiesto la necesidad de modificar la normativa actualmente vigente, en desarrollo de lo establecido por la Ley Orgánica de Educación.

Se estima necesario potenciar la figura del director o directora y establecer un sistema de selección que asegure el nombramiento de la persona más idónea para desempeñar un cargo de una importancia fundamental en la organización y funcionamiento de los centros de la escuela pública vasca, en la calidad de la enseñanza impartida en esos centros y en el desarrollo y ejercicio adecuado de la autonomía de los mismos, con objeto de conseguir en cada centro el clima de cohesión, convivencia y trabajo que posibilite los resultados académicos y educativos que se persiguen.

En este sentido, se implanta un sistema de selección del director o directora de los centros públicos docentes de Euskadi basado en los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad, que permita seleccionar a las candidatas o candidatos más idóneos profesionalmente y que obtengan el mayor apoyo de la comunidad educativa.

La selección se efectuará mediante concurso de méritos entre el profesorado funcionario de carrera que imparta alguna de las enseñanzas encomendadas al mismo.

Asimismo, se establecen medidas para valorar de modo adecuado a los cargos directivos de los centros y, en particular a los directores y directoras, porque se considera que el desempeño de una labor tan importante para el buen funcionamiento y la calidad de los centros públicos docentes debe ser convenientemente reconocida y valorada.

En este sentido se determina que el ejercicio de cargos directivos, y en especial del cargo de director o directora, será retribuido de forma diferenciada, en consideración a la responsabilidad y dedicación exigidas, de acuerdo con las cuantías que para los complementos establecidos al efecto fije el Gobierno.

De igual manera, el ejercicio de cargos directivos, y, en todo caso, del cargo de directora o director, será especialmente valorado a los efectos de la provisión de puestos de trabajo en la función pública docente y, de manera especial, en el acceso a la Inspección de Educación.

Por otra parte, los directores y directoras, jefes y jefas de estudio, y secretarios y secretarias serán evaluados al final de su mandato y quienes obtuvieren evaluación positiva obtendrán un reconocimiento personal y profesional en los términos que reglamentariamente se establezcan.

Asimismo, se dispone que las directoras y los directores de los centros de la escuela pública vasca que hayan ejercido su cargo con valoración positiva durante el periodo de tiempo que reglamentariamente se determine, mantendrán, mientras permanezcan en situación

finkatutako neurriak, baldintzak eta betekizunak errespetatuta.

Zuzendarien eskumenei buruzko artikulua ere aldatu egin da, haien figura indartu eta bultzatzeko eta duten zeregina behar bezala burutzeko beharrezko ahalmenez hornitzeko.

Azkenik, xedapen gehigarri bidez ezartzen da Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuei ere aplikatuko zaiela, Lanbide Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa aplikagarri gerta daitekeen alderdi zehatzetan izan ezik.

Lehenengo artikulua.— Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 30. artikuluko 3. paragrafoa aldatzen da, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«30.3 artikulua.— Kide bakarreko organoen agintaldia 33. eta 40. artikuluetan ezarriko du lege honek kasu bakoitzera. Hautapenezko kide anitzeko organoak bi urtez behin berrituko dira, ikastetxearen antolaketa eta jardunbiderako erregelamenduak kasu bakoitzera ezarritako aurreikuspenen arabera, epe horretan gerta daitezen hutsuneak betetzearen kaltetan gabe».

Bigarren artikulua.— Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 31.2 artikuluko e) idatz-zatia aldatzen da, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«31.2.e) artikulua. Ikastetxeko zuzendaria hautatzeko prozesuan parte hartzea. Kideen bi hereneko ge-hiengoz onartuta, zuzendaria izendapena ezeztatzea proposatzea, karguari datzezkion funtzioen ez-betetze larririk balitz».

Hirugarren artikulua.— Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 31.2 artikuluko g) idatz-zatia aldatzen da, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«31.2.g) artikulua. Ikastetxeen bizikidetza arloko neurri zuzentzaileak ezagutzea eta berrikustea, ikasleen eskubideak eta betebeharak arautzen dituzten arauetan bat etorri».

Laugarren artikulua.— Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 33. artikulua aldatzen da, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«1.— Zuzendaria ikastetxearen kudeaketa orokor eta jardueraren arduraduna da, irakas-jarduerarena bereziki, ordezkaritza-organo gorenak emandako jarraibideen arabera jokatuz.

de activo, la percepción de una parte del complemento retributivo correspondiente en la proporción, condiciones y requisitos que reglamentariamente se establezcan.

Se modifica también el artículo referido a las competencias del director o directora, con objeto de reforzar y potenciar su figura y dotarla de las atribuciones necesarias para desarrollar adecuadamente su labor.

Finalmente se establece, por medio de una disposición adicional, que la Ley de la Escuela Pública Vasca será también de aplicación a los centros integrados de Formación Profesional, salvo en aquellos aspectos específicos en los que les resulte de aplicación la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional.

Artículo primero.— Se modifica el apartado 3 del artículo 30 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 30.3.— La duración del mandato de los órganos unipersonales será la que para cada caso se establece en los artículos 33 y 40 de la presente ley. Los órganos colegiados de carácter electivo se renovarán cada dos años, sin perjuicio de que se cubran hasta dicho término las vacantes que se produzcan, conforme a las previsiones que establezca para cada caso el reglamento de organización y funcionamiento del centro».

Artículo segundo.— Se modifica la letra e) del artículo 31.2 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 31.2.e) Participar en el proceso de selección del director o directora del centro. Previo acuerdo adoptado por mayoría de dos tercios de sus miembros, proponer la revocación del nombramiento de la directora o director, en caso de incumplimiento grave de las funciones inherentes a su cargo».

Artículo tercero.— Se modifica la letra g) del artículo 31.2 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 31.2.g) Conocer y en su caso revisar las medidas correctoras en materia de convivencia en los centros escolares, de acuerdo con las normas que regulen los derechos y deberes del alumnado».

Artículo cuarto.— Se modifica el artículo 33 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, que queda redactado de la forma siguiente:

«1.— El director o directora es el responsable de la gestión general y el funcionamiento del centro, en particular de su actividad docente, actuando de conformidad con las directrices emanadas del órgano máximo de representación.

2.- Hezkuntza-komunitatearen eta hezkuntza Administrazioaren parte hartza izango duen prozesu baten bidez hautatuko da zuzendaria. Prozesu horrek aukera eman behar du lanbide mailan egokienak diren eta hezkuntza-komunitatearen babes handiena lortzen duten hautagaiak aukeratzeko.

3.- Ikastetxe publikoetako zuzendariak ikastetxeari esleitutako irakaskuntzaren bat ematen duten karrerako irakasle funtzionarioen arteko meritu-lehiaketa bidez hautatu eta izendatuko dira. Hautaketak berdintasun, publikotasun, meritu eta gaitasun printzipioak izango ditu oinarri.

4.- Meritu-lehiaketen parte hartzeko baldintzak honako hauek izango dira:

a) Irakaskuntzako funtziro publikoan gutxienez bost urteko antzinatasuna izatea karrerako funtzionario gisa.

b) Iraupen bereko aldi batean ikastetxeak eskaintzen duen irakaskuntzaren batean karrerako funtzionario gisa zuzeneko irakaskuntza eman izana.

c) Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko batean, lehiaketaren xede den ikastetxeak eskaintzen duen irakaskuntzaren batean lan egitea, gutxienez ikasturte oso bateko esperientziarekin deialdia argitaratzean.

d) Zuzendaritza-proiektu bat aurkeztea. Proiektu horrek helburuak, jardun-ildoak eta ebaluazioa jasoko ditu, besteak beste, baita ikastetxeko kide bakarreko beste organoetan jarduteko proposatzen diren pertsonen izena ere.

5.- Haur Hezkuntzako berariazko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako ikastetxe osatugabeetan, zortzi unitate baino gutxiago dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, eta arte-irakaskuntza profesionalak, kirol-irakaskuntzak, hizkuntzen irakaskuntzak edo helduei zuzendutakoak ematen dituzten eta zortzi irakasle baino gutxiago dituzten ikastetxeetan, hezkuntza gaietan eskumena duen sailak aurreko paragrafoan ezarritako baldintzaren bat betetzeaz salbuetsi ahal izango du zuzendarigaia, beti ere, araudi bidez ezarritakoaren arabera».

Bosgarren artikulua.- 33 bis artikulua gehitzen zaio Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeari, ondoko tituluia izan eta hauxe esango duena:

«Hautatzeko prozedura.

1.- Euskal eskola publikoko ikastetxeetako zuzendariak aukeratzeko, hezkuntza gaietan eskumena duen sailak dagozkion meritu-lehiaketak deituko ditu eta zuzendarigaien merituak eta aurkeztutako proiektuak balioesteko irizpide objektiboak eta prozedura ezarriko ditu.

2.- La selección del director o directora se realizará mediante un proceso en el que participen la comunidad educativa y la Administración educativa. Dicho proceso debe permitir seleccionar a las candidatas o candidatos más idóneos profesionalmente y que obtengan el mayor apoyo de la comunidad educativa.

3.- La selección y nombramiento de los directores y directoras de los centros de la escuela pública vasca se efectuará mediante concurso de méritos entre el profesorado funcionario de carrera que imparte alguna de las enseñanzas encomendadas al mismo. La selección se realizará de conformidad con los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad.

4.- Serán requisitos para poder participar en el concurso de méritos los siguientes:

a) Tener una antigüedad de al menos cinco años como funcionario de carrera en la función pública docente.

b) Haber impartido, durante un periodo de igual duración, docencia directa en alguna de las enseñanzas de las que ofrece el centro a que se opta, como funcionario de carrera.

c) Estar prestando servicios en un centro público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en alguna de las enseñanzas de las del centro al que se opta, con una antigüedad en el mismo de al menos un curso completo al publicarse la convocatoria.

d) Presentar un proyecto de dirección que incluya, entre otros, los objetivos, las líneas de actuación y la evaluación del mismo y los nombres de las personas propuestas para desempeñar los demás órganos unipersonales del centro.

5.- En los centros específicos de Educación Infantil, en los incompletos de Educación Primaria, en los de Educación Secundaria con menos de ocho unidades, en los que imparten enseñanzas artísticas profesionales, deportivas, de idiomas o las dirigidas a personas adultas con menos de ocho profesores, el departamento competente en materia educativa podrá eximir a los candidatos y a las candidatas de cumplir alguno de los requisitos establecidos en el apartado anterior, en los términos que reglamentariamente se determinen».

Artículo quinto.- Se añade un artículo 33 bis a la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, con el siguiente título y tenor:

«Procedimiento de selección.

1.- Para la selección de las directoras y los directores de los centros de la escuela pública vasca, el departamento competente en materia educativa convocará los correspondientes concursos de méritos y establecerá los criterios objetivos y el procedimiento de valoración de los méritos del candidato o candidata y del proyecto presentado.

2.– Hautaketa ikastetxean bertan egingo du hezkuntza gaietan eskumena duen saileko ordezkari eta dena delako ikastetxeko ordezkari osatutako batzorde batek. Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak batzordekideen guztizko kopurua finkatu beharko du. Batzordeko kideen herena, gutxienez, klaustroak izendatutako ikastetxeko irakasleek osatuko dute, eta beste heren bat, gutxienez, irakasle ez diren ikastetxeko ordezkari eta organo gorenko kideek izendatuko dute euren artean.

3.– Zuzendarigaietan egiaztatutako ikasketa-meritu eta lanbide-merituen balioespen objektiboa eta zuzendaritzaproiektuaren balioespena hartuko dira kontuan. Hautaketa, nolanahi ere, demokratikoki erabakiko dute batzordeko kideek, hezkuntza gaietan eskumena duen sailak ezarritako irizpideei jarraiki.

4.– Hautaketa egiteko, ikastetxeko irakasleen kandidaturak hartuko dira kontuan lehenik, horiek lehentasuna izango baitute. Ikastetxeko izangairik ez dagoenean edo ikastetxeko izangaiak hautatzen ez direnean, beste ikastetxe batzuetako irakasleen kandidaturak balioetsiko ditu batzordeak».

Seigarren artikulua.– 33 ter artikulua gehitzen zaio Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeari, ondoko titulua izan eta hauxe esango duena:

«Izendapena.

1.– Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak antolatutako hasierako prestakuntzako programa bat gainditu beharko dute hautatutako zuzendarigaietan. Zuzendaritzalaean gutxienez bi urteko esperientzia dutela frogatzen duten zuzendarigai hautatuak salbuetsita egongo dira hasierako prestakuntzako programa hori egiteaz, zuzendaritzalaak betetzeko hezkuntza Administrazioak antolatuko dituen eguneratzeta eta hobekuntza-ikastaroak eta beste jarduera batzuetan parte hartzeko zuzendaritzakargu guztiak daukaten betebe-harrari kalterik egin gabe.

2.– Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak dena delako ikastetxeko zuzendari izendatuko du, lau urtez, hasierako prestakuntza-programa gainditu duen zuzendarigaia.

3.– Zuzendarien izendapena iraupen bereko aldieta-rako berriku ahal izango da, betiere, aldi bakoitzamaitzean egindako lanak ebaluazio positiboa jasotzen badu. Ebaluazio horren irizpideak eta prozedurak publikoak izango dira. Horretarako, zuzendaria berariaz eskatu beharko du eta zuzendaritz programako bidezko eguneratzeak aurkeztuko ditu.

4.– Zuzendaria, ikastetxeko zuzendaritzan ondoz ondoko bi agintaldi egin ondoren, karguan jarraitu ahal izateko kandidatura aurkeztu beharko du berriz ere dagokion meritu-lehiaketan. Berriz ere hautatua izango

2.– La selección será realizada en el centro por una comisión constituida por representantes del departamento competente en materia educativa y del centro correspondiente. Corresponde al departamento competente en materia educativa determinar el número total de vocales de las comisiones. Al menos un tercio de los miembros de la comisión será profesorado del centro elegido por el claustro y al menos otro tercio será elegido por y entre los miembros del órgano máximo de representación del centro que no son profesoras ni profesores.

3.– La selección de la directora o director, que tendrá en cuenta la valoración objetiva de los méritos académicos y profesionales acreditados por los aspirantes y la valoración del proyecto de dirección, será decidida democráticamente por los miembros de la comisión, de acuerdo con los criterios establecidos por el departamento competente en materia educativa.

4.– La selección se realizará considerando, primero, las candidaturas de profesoras y profesores del centro, que tendrán preferencia. En ausencia de candidatos o candidatas del centro o cuando ninguna de estas personas haya sido seleccionada, la comisión valorará las candidaturas de profesoras y profesores de otros centros».

Artículo sexto.– Se añade un artículo 33 ter a la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, con el siguiente título y contenido:

«Nombramiento.

1.– Las personas seleccionadas deberán superar un programa de formación inicial, organizado por el departamento competente en materia educativa. Las personas seleccionadas que acrediten una experiencia de al menos dos años en la función directiva estarán exentas de la realización del programa de formación inicial, sin perjuicio de la obligación que corresponde a todos los cargos directivos de realizar los cursos y otras actividades que organice la Administración educativa para su actualización y perfeccionamiento en el desempeño de la función directiva.

2.– El departamento competente en materia educativa nombrará director o directora del centro que corresponda, por un periodo de cuatro años, a quien haya superado el programa de formación inicial.

3.– El nombramiento de las directoras y de los directores podrá renovarse, por otro periodo de igual duración, previa evaluación positiva del trabajo desarrollado al final del primer periodo. Los criterios y procedimientos de esta evaluación serán públicos. Para ello, el director o directora deberá solicitarlo expresamente y presentar las actualizaciones pertinentes en el programa de dirección.

4.– El director o directora, tras dos periodos consecutivos ejerciendo la dirección del centro, para continuar desempeñando su cargo deberá presentar nuevamente su candidatura en el correspondiente concurso de mé-

balitz, agintaldia iraupen bereko aldiatarako berritu ahal izango da, beti ere aldi bakotza amaitzean egindako lanak ebaluazio positiboa jasotzen badu. Procedura hori mugagabe errepikatu ahal izango da, eta pertsona berak ondoz ondoko bi agintaldi egin ondoren beti egin beharko da beste meritu lehiaketa bat.

5.- Zuzendarigairik ez dagoenean, ikastetxe sortu berrien kasuan edo batzordeak ezein zuzendarigai hauatzen ez duenean edo hautatuak ez badu gainditu hasierako prestakuntza-programa, hezkuntza gaietan eskumena duen sailak irakasle bat izendatuko du zuzendari, lau urteko aldi baterako gehienez».

Zazpigarren artikulua.- 33 quater artikulua gehitzen zaio Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeari, ondoko titulua izan eta hauxe esango duena:

«Zuzendariak kargua uztea.

Zuzendariak honako kasu hauetan utziko du bere kargua:

a) Izendapenari dagokion aldia eta, hala badagokio, aldi horren luzapena amaitzen denean.

b) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak onartutako uko arrazoituaren kasuan.

c) Gerora sortutako ezintasun fisikoaren edo psikoaren kasuan.

d) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak bere ekimenez edo ikastetxeko ordezkaritza organo gorenen proposamen arrazoitu bidez, kideen bi hereneko gehiengoz onartuta, zuzendari karguari datxezkion funtzioen ez-betetze larriagatik era arrazoituan kargutik kentzen duenean. Nolanahi ere, kargutik kentzeari buruzko ebazpena kontraesaneko expedientea bideratutakoan emango da, interesdunari eta ordezkaritza-organo gorenari entzun ondoren».

Zortzigarren artikulua.- 33 quinques artikulua gehitzen zaio Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeari, ondoko titulua izan eta hauxe esango duena:

«Zuzendariordea.

Araudi bidez ezarri ahal izango da zuzendariorde bat izatea. Kasu hauetan zuzendariordea zuzendaritzataldeko kide izango da eta, besteak beste, zuzendaria ordezkatuko du hura gaixotzen edo kanpoan bada, kargualdian eten edo kargugabetzen badute, legez ezarritako prozedura bidez ordezkorik izendatu arte, hain zuzen. Zuzendariordearen kargua ez dagoen ikastetxeetan, ikastetxeko ikasketaburuak ordezkatuko du zuzendaria gorago aipatutako kasuetan».

ritos. Si esta persona fuera nuevamente seleccionada y nombrada, su mandato podrá renovarse, por otro periodo de igual duración, previa evaluación positiva del trabajo desarrollado al final del periodo correspondiente. Este procedimiento podrá repetirse indefinidamente, debiendo siempre realizarse un nuevo concurso de méritos después de dos períodos consecutivos de mandato de una misma persona.

5.- En ausencia de candidaturas, en el caso de centros de nueva creación o cuando la comisión correspondiente no haya seleccionado a ninguna persona o la persona seleccionada no haya superado el programa de formación inicial, el departamento competente en materia educativa nombrará directora o director a una profesora o profesor por un periodo máximo de cuatro años».

Artículo séptimo.- Se añade un artículo 33 quáter a la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, con el siguiente título y contenido:

«Cese del director.

El cese del director o directora se producirá en los siguientes supuestos:

a) Finalización del periodo para el que fue nombrado y, en su caso, de la prórroga del mismo.

b) Renuncia motivada aceptada por el departamento competente en materia educativa.

c) Incapacidad física o psíquica sobrevenida.

d) Revocación motivada por el departamento competente en materia educativa, a iniciativa propia o a propuesta motivada del órgano máximo de representación del centro, previo acuerdo adoptado por mayoría de dos tercios de sus miembros, por incumplimiento grave de las funciones inherentes al cargo de director o directora. En todo caso, la resolución de revocación se emitirá tras la instrucción de un expediente contradictorio, previa audiencia a la persona interesada y oído el órgano máximo de representación».

Artículo octavo.- Se añade un artículo 33 quinques a la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, con el siguiente título y contenido:

«Vicedirector.

Reglamentariamente podrá establecerse la existencia del cargo de vicedirector o vicedirectora. En estos casos, el vicedirector o vicedirectora formará parte del equipo directivo y tendrá, entre otras funciones, la de sustituir al director o directora en los casos de enfermedad, ausencia, suspensión o cese, hasta su sustitución por el procedimiento legalmente establecido. En los centros en los que no existe el cargo de vicedirectora o vicedirector, la sustitución de la directora o director en los casos antes citados corresponderá al jefe o jefa de estudios del centro».

Bederatzigarren artikulua.— 33 sexies artikulua getzten zaio Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeari, ondoko titulua izan eta hauxe esango duena:

«Zuzendariaren funtzioaren aitormena.

1.— Zuzendari kargua betetzeko zeregina bereiz ordainduko da, exijitutako erantzukizuna eta arduraldia kontuan hartuta, Jaurlaritzak ezarritako osagarietarako finkatzen dituzten kopuruei jarraiki.

2.— Era berean, zuzendari kargua betetzeko zeregina bereziki balioetsiko da irakaskuntzako funtzio publikoan dauden lanpostuen horniduraren ondorioetarako eta, batez ere, hezkuntzako ikuskaritzan sartzeko.

3.— Bestalde, zuzendariak agintaldiaren amaieran ebaluatu dira. Ebaluazio positiboa lortzen dutenek aitormen pertsonala eta profesionala jasoko dute, araudi bidez ezarritako baldintzetan.

4.— Euskal eskola publikoko ikastetxeetako zuzendariak, araudi bidez finkatzen den denboraldian kargua balioespen positiboarekin bete dutenean, dagokien ordainsari-osagariaren zati bat jasotzen jarraituko dute aktibo dauden bitartean, betiere, araudi bidez finkatutako neurriak, baldintzak eta betekizunak errespetatuta».

Hamargarren artikulua.— Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 34. artikulua aldatzen da, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«34. artikulua.— Zuzendariari dagokio:

a) Ikastetxearen ordezkaritza izatea, ikastetxean hezkuntza Administrazioa ordezkatzea, eta Administrazio horri hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.

b) Ikastetxearen jarduera guztiak zuzentzea eta koordinatzea, irakasleen klaustroari eta ordezkaritza-organo gorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe.

c) Zuzendaritza pedagogikoa gauzatzea, hezkuntza-berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.

d) Legeen eta indarrean dauden gainerako xedapenen betetza bermatzea.

e) Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea.

f) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea, gatazkak konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean dagoen araudia beteta, gai honetan ordezkaritza-organo gorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe. Horretarako, ikas-

Artículo noveno.— Se añade un artículo 33 sexies a la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, con el siguiente título y contenido:

«Reconocimiento de la función del director.

1.— El ejercicio del cargo de director o directora, será retribuido de forma diferenciada, en consideración a la responsabilidad y dedicación exigidas, de acuerdo con las cuantías que para los complementos establecidos al efecto fije el Gobierno.

2.— Asimismo, el ejercicio del cargo de directora o director será especialmente valorado a los efectos de la provisión de puestos de trabajo en la función pública docente y de manera especial, en el acceso a la inspección de educación.

3.— Por otra parte, los directores y directoras serán evaluados al final de su mandato. Quienes obtuvieren evaluación positiva obtendrán un reconocimiento personal y profesional en los términos que reglamentariamente se establezcan.

4.— Las directoras y directoras de los centros de la escuela pública vasca que hayan ejercido su cargo con valoración positiva durante el periodo de tiempo que reglamentariamente se determine mantendrán, mientras permanezcan en situación de activo, la percepción de una parte del complemento retributivo correspondiente en la proporción, condiciones y requisitos que reglamentariamente se establezcan».

Artículo décimo.— Se modifica el artículo 34 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 34.— Corresponde al director o directora:

a) Ostentar la representación del centro, representar a la Administración educativa en el mismo y hacerle llegar a ésta los planteamientos, aspiraciones y necesidades de la comunidad educativa.

b) Dirigir y coordinar todas las actividades del centro, sin perjuicio de las competencias atribuidas al claustro de profesoras y profesores y al órgano máximo de representación del centro.

c) Ejercer la dirección pedagógica, promover la innovación educativa e impulsar planes para la consecución de los objetivos del proyecto educativo del centro.

d) Garantizar el cumplimiento de las leyes y demás disposiciones vigentes.

e) Ejercer la jefatura de todo el personal adscrito al centro.

f) Favorecer la convivencia en el centro, garantizar la mediación en la resolución de los conflictos e imponer las medidas correctoras que correspondan a los alumnos y alumnas en cumplimiento de la normativa vigente, sin perjuicio de las competencias que, en este

tetxeetan gatazkak konpontzeko prozedurak bizkortzea sustatuko da.

g) Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana sendotzeko, familiekin, erakundeekin eta organismos-ekin lankidetza bultzatzea, eta eskola-giroa sustatzea, ikasleek jakintzetan eta balioetan prestakuntza integrala jasotzea eta ikasketa-ohiturak sustatzeko lagungarri izan daitezkeen jardun guztiak garatze alderia.

h) Ikastetxearen barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.

i) Ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenaren eta irakasleen klaustroaren egintza akademikoetarako eta bilkuretarako deialdia egitea, egintza-bilkura horiek zuzentzea eta aipatutako erakundeek beren eskumenen eremuan hartutako erabakiak betearaztea eta betetzen diren zaintza.

j) Lege honen 63. atalak aipatzen dituen obren, zerbitzuen eta horniduren kontrataazioak egitea, gastuak baimentzea ikastetxearen urteko kudeaketa-programarekin bat etorri, ordainketak agintzea eta ikastetxearen ziurtagiriei eta dokumentuei oniritzia ematea, hori guztia araudi bidez ezarritakoari jarraiki.

k) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailari ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideen izendapena eta kargu-uztea proposatzea, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenari jakinarazi ondoren.

l) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak esleitzen dizkion guztiak, beste arau batzuk esleitzen dizkionak eta ikastetxearen antolaketa eta jardunbiderako errege-lamenduak ezartzen dizkionak».

Hamaikagarren artikulua.— Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 36. artikuluari 4. paragrafoa gehitzen zaio, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«36.4 artikulua.— Zuzendariaren kargua ez diren ikastetxeko beste zuzendaritza-karguak betetzeko zereginia bereiz ordainduko da, exijitutako erantzukizuna eta arduraldia kontuan hartuta, Jaurlaritzak ezarritako osagarrietarako finkatzen dituen kopuruei jarraiki.

Era berean, zuzendaritza-karguak betetzeko zereginia bereziki balioetsiko da irakaskuntzako funtziopublikoan dauden lanpostuen horniduraren ondorioetarako eta, batez ere, Hezkuntzako Ikuskaritzan sartzeko.

Bestalde, ikasketa-buruak eta idazkariak agintaldiaren amaieran ebaluatuko dira. Ebaluazio positiboa lortzen dutenek aitormen pertsonala eta profesionala jasoko dute, araudi bidez ezarritako baldintzetan».

tema tenga atribuidas el órgano máximo de representación del centro. A tal fin se promoverá la agilización de los procedimientos para la resolución de los conflictos en los centros.

g) Impulsar la colaboración con las familias, con instituciones y con organismos que faciliten la relación del centro con el entorno, y fomentar un clima escolar que favorezca el estudio y el desarrollo de cuantas actuaciones propicien una formación integral en conocimientos y valores de las alumnas y alumnos.

h) Impulsar las evaluaciones internas del centro y colaborar en las evaluaciones externas y en la evaluación del profesorado.

i) Convocar y presidir los actos académicos y las sesiones del órgano máximo de representación y del claustro de profesores y profesoras del centro y ejecutar y velar por el cumplimiento de los acuerdos adoptados por dichos órganos en el ámbito de sus competencias.

j) Realizar las contrataciones de obras, servicios y suministros a los que se refiere el artículo 63 de la presente ley, así como autorizar los gastos de acuerdo con el programa anual de gestión del centro, ordenar los pagos y visar las certificaciones y documentos oficiales del centro, todo ello de acuerdo con el procedimiento que reglamentariamente se establezca.

k) Proponer al departamento competente en materia educativa el nombramiento y cese de los otros miembros del equipo directivo del centro, previa información al claustro de profesoras y profesores y al órgano máximo de representación del centro.

l) Cualesquiera otras que le sean encomendadas por el departamento competente en materia educativa, las que se le atribuyan por otras normas y las que se le asignen en el reglamento de organización y funcionamiento del centro».

Artículo undécimo.— Se añade el apartado 4 al artículo 36 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 36.4.— El ejercicio de los cargos de los miembros del equipo directivo del centro, distintos del director o directora, será retribuido de forma diferenciada, en consideración a la responsabilidad y dedicación exigidas, de acuerdo con las cuantías que para los complementos establecidos al efecto fije el Gobierno.

Asimismo, el ejercicio de dichos cargos será especialmente valorado a los efectos de la provisión de puestos de trabajo en la función pública docente y, de manera especial, en el acceso a la Inspección de Educación.

Por otra parte, los jefes y jefas de estudio, y secretarios y secretarias serán evaluados al final de su mandato. Quienes obtuvieren evaluación positiva obtendrán un reconocimiento personal y profesional en los términos que reglamentariamente se establezcan».

Hamabigarren artikulua.— Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 40. artikulua aldatzen da, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«40. artikulua.— 1.— Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak, ikastetxeko zuzendariai proposatuta, ikastetxeko irakasleen artean izendatuko ditu ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideak, proposatu dituen zuzendariai agintaldi bererako, hain zuzen.

2.— Ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kideek, zuzendariai ezik, honako kasu hauetan utziko dute beren kargua:

- a) Izendapenari dagokion aldia amaitzean.
- b) Ikastetxeko zuzendariai kargua uzten duenean.
- c) Ikastetxeko zuzendariai proposatuta, hezkuntza gaietan eskumena duen sailak kargutik kentzen dituztenean.
- d) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak onartutako uko arrazoituaren kasuan.
- e) Gerora sortutako ezintasun fisikoaren edo psikikoaren kasuan.
- f) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak bere ekinenez edo ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenen proposamen arrazoitu bidez zuzendari karguari datxekion funtzioen ez-betetze larriagatik era arrazoituan kargutik kentzen dituztenean. Nolanahi ere, kargutik kentzeari buruzko ebazpena kontraesaneko expedientea bideratutakoan emango da, interesdunari, ikastetxeko zuzendariai eta ordezkaritza-organo gorenari entzun ondoren».

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Lan-legepeko pertsonala irakasle guztien ehuneko berrogeita hamarra, gutxienez, den euskal eskola publikoko ikastetxe horietan, aukeratze-prozesu arruntean ez bada hautagai-zerrendarik aurkezten edo, aurkezu arren, aukeratzen ez bada, ikastetxearen titularra den Administrazio publikoaren menpeko lan-legepeko pertsonal finkoaren artean aukeratu ahal izango da zuzendaria, ohiko prozeduraren antzeko baten bidez, berdintasun, publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera.

Bigarrena.— Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuei ere aplikatuko zaie, Lanbide Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa zein lege organiko hori garatuko duten eta oinarrizko izaera duten arauak aplikagarri gerta daitezkeen alderdi zehatzetan izan ezik.

Artículo duodécimo.— Se modifica el artículo 40 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 40.— 1.— El departamento competente en materia educativa, a propuesta del director o directora del centro, nombrará entre los profesores y profesoras del mismo a los demás miembros del equipo directivo del centro, por el mismo periodo de mandato del director o directora que les proponga.

2.— El cese de los miembros del equipo directivo del centro, distintos del director o directora, se producirá en los siguientes supuestos:

- a) Finalización del periodo de nombramiento.
- b) Cese del director o directora del centro.
- c) Revocación de su cargo por parte del departamento competente en materia educativa a propuesta del director o directora del centro.
- d) Renuncia motivada aceptada por el departamento competente en materia educativa.
- e) Incapacidad física o psíquica sobrevenida.
- f) Revocación motivada por el departamento competente en materia educativa, a iniciativa propia o a propuesta motivada del órgano máximo de representación del centro, por incumplimiento grave de las funciones inherentes a su cargo. En todo caso, la resolución de revocación se emitirá tras la instrucción de un expediente contradictorio, previa audiencia al interesado y oídos el director o directora del centro y el órgano máximo de representación».

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— En aquellos centros de la escuela pública vasca en los que el personal laboral represente como mínimo el cincuenta por ciento del conjunto del profesorado del mismo, cuando en el proceso ordinario de selección no se presente o no sea seleccionada ninguna candidatura, se podrá seleccionar al director o directora entre el personal laboral fijo dependiente de la administración pública titular del centro correspondiente, mediante un procedimiento similar al procedimiento ordinario, de conformidad con los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad.

Segunda.— La Ley de la Escuela Pública Vasca será igualmente de aplicación a los centros integrados de Formación Profesional, salvo en aquellos aspectos específicos en los que les resulte de aplicación la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional, y en las normas que la desarrollen y tengan carácter de norma básica.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko ekainaren 17a.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**ETXEBIZITZA ETA
GIZARTE GAIETAKO SAILA****3809**

105/2008 DEKRETUA, ekainaren 3koa, Lurzoruan eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.

Lurzoruan eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea onartu eta indarrean jarri izanak aurrekaririk ez duen aldaketa eragin du Euskal Autonomía Erkidegoko hirigintza-sisteman. Izan ere, legezko testu horretan, alde batetik gai berriak lantzen dira, eta, bestetik, legez aurreikusitako iragankortasun-erregimenak premiaz garatu beharko liratekeen arau jakin batzuk berehala egitera behartzen du.

Gainera, 2007ko uztailaren 1ean Lurzoruan 8/2007 Estatuko Legea jarri da indarrean. Lege horrek gure hirigintza-legeriari dagokionez berritisun handirik ekarri ez badu ere, komeni da bi arauen agindu juridiko jakin batzuk bateratzea, segurtasun juridikoa lortzeko eta Herri Administrazioek bi arauen aplikazio praktiko koordinatua lor dezaten errazteko.

Ildo horretan, lurzoruan sailkapenaren aldaketa aipatu behar da, besteak beste. Funtsean, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzak eragindako finkatu gabeko hiri-lurzoruan kategoria berria, eta lurzoru horren hirigintza-garapena ezartzen duen zuzkidura-jardunen erregimena aipatu behar dira. Helburu horrekin, definizio zehatzagoa finkatzeaz gain, praktikan jartza errazteko erregimen juridiko bat xedatu du dekretuak. Erregimen juridiko hori arau-garapenari lotuta geratu zen 2/2006 Legean, eta arau honen bidez bete egingo da.

Bestalde, Lurzoruan eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean lurzoru ez-urbanizagarriaren sailkapenari da-

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de junio de 2008.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES****3809**

DECRETO 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

La aprobación y entrada en vigor de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, ha supuesto un cambio sin precedentes en el sistema urbanístico propio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ya que en dicho texto legal por una parte se abordan cuestiones novedosas y, por otra, el régimen de transitoriedad previsto legalmente obliga a practicar con carácter inmediato ciertas reglas que convienen sean desarrolladas reglamentariamente con carácter urgente.

Ello ha venido a coincidir con la entrada en vigor el pasado 1 de julio de 2007 de la Ley estatal 8/2007, de Suelo, que si bien no ha supuesto grandes novedades en relación a nuestra legislación urbanística, conviene que ciertos preceptos jurídicos de ambas normas sean cohesionados en aras a la seguridad jurídica y, además, con el objeto de facilitar la aplicación práctica coordinada de ambas por parte de las Administraciones Pùblicas.

En este sentido conviene citar, entre otras, la alteración de la clasificación del suelo. Fundamentalmente hay que referirse a la nueva categoría de suelo urbano no consolidado por incremento de la edificabilidad ponderada y el régimen las actuaciones de dotación donde dicho suelo encuentra su desarrollo urbanístico. Con este objetivo, el Decreto además de fijar una definición más precisa, dispone un régimen jurídico en aras a facilitar su puesta en práctica, régimen jurídico que en la Ley 2/2006 quedaba derivado a desarrollo reglamentario y que la presente norma pretende cumplir.

Por otra parte, son reseñables también las novedades introducidas en la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo,